

OSAKIDETZA

20
26

ZURE
ESKUBIDEAK

Zure eskubideen
defentsan

LAB'

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

LAB klase sindikatua da, soziopolitikoa, konfrontaziokoa, abertzalea, ezkerrekoa, feminista eta arrazakeriaren aurkakoa. Langileen eskubideen defentsan eta Euskal Herri burujabe eta sozialistaren aldeko apustuan oinarritzen du bere jarduera. Sindikatu euskalduna, feminista eta internazionalista izateaz gain, Frantzia eta Espainiako mugen bi aldeetan lan egiten duen sindikatu nazional bakarra ere bada.

Gure sektorearen gai zehatzak lantzeaz gain, modu militantean inplikatzeko gara herri honetako borroka eta aldarrikapen nagusietan. Finean, sistemari buelta emateko guztiok konpromisoa hartzea bide bakarra dela sinistuta gaude.

ETA OSAKIDETZAN?

- » **Erantzunean ez ezik, proposamenean ere sinesten dugu.** Horregatik, EZETZ esaten diegu Euskal Herriko zerbitzu publikoen murrizketei, eta gainera, alternatiba integral bat planteatzen dugu. LABek proposamen bat du Euskal Herrian nahi dugun zerbitzu publikoen ereduaren inguruan.
- » LABen ez gara konformatzen gure eskubideen aurkako erasoa gelditzearekin eta aurreko egoerara itzultzearekin eta beraz, **eredu ekonomiko, sozial eta politikoa errotik aldatu behar dela planteatzen dugu, aldaketarako benetako berme gisa.**
- » **Osasun publikoa funtsezko eremua da** eta horregatik bi helburu ditugu Osakidetzan: Osakidetza **langileen lan-baldintzak defendatzea eta hobetzea, eta osasun publikoa defendatzea**, pribatizazioei aurre eginez eta gure herrian asistentzia-kalitatea hobetzea exijituz.
- » **Osakidetza langile guztien eskubideak defendatzen ditugu**, haien kategoria edozein dela ere. Taldean lan egin behar dugu kalitatezko laguntza eskaintzeko. Bakoitza bere funtzioekin, baina denak helburu berarekin eta elkartasunez.
- » Arazo orokorrez gain ezinbestekotzat jotzen dugu kategoria bakoitzeko egoera espezifikoak ere kontuan hartzea. LAB arazo horiei guztiei erantzuna ematen dien sindikatu bat da, **eguneroko arazo zehatz eta benetakoengatik borrokatzen duena, baina arazoaren sustraiak bistatik galdu gabe.** LAB Osasungintza osatzen dugunok sektoreko langileak gara, kategoria guztietakoak, behin-behineko langileak zein finkoak. Beraz, lantokien errealitatea eta bertan dauden arazoak ezagutzen ditugu, gureak propioak ere badirelako.
- » Kategoria bakoitzaren arazoak ezagutzen ditugu, baina sindikatu korporatiboek ez bezala, hauen arteko elkarrekintzak bilatuko ditugu, **emango diren hobekuntzak ez daitezen izan beste kolektibo eta kategorien kontura.**

ZURE PARTE-HARTZEA BEHAR DUGU

Beste zerbitzu publiko batzuetan bezala, osasun-sistema publikoaren desegite estrategia batean gaude, enpresa pribatuari eremua irekitzeko. Horrela, gizarte osoarentzat oinarritzkoa den eskubide batekin amaitu nahi da, eta hori gure osasuna bezain garrantzitsua da. Osasungintzak ezin du egon etekin ekonomikoak bilatzen dituzten pertsonen esku.

Egoera honen aurka gaudenok egunetik egunera gehiago izan behar dugu. Ziur gaude LABek zenbat eta indar handiagoa izan, orduan eta gehiago egingo dugula borroka horretan aurrera.

Hauxe da gure izaera. Orain zuk erabaki behar duzu.

Zain gaituzu!

Bai Osakidetzara lehen aldiz iritsi bazara, eta baita aldi baterako lanean denbora badaramazu ere, ez ahaztu behin-behinekoa izatea ez dela esklabutzaren edo eskubiderik ezaren sinonimoa, nahiz eta kontratua oso laburra izan.

Jarraian, zure eskubideen laburpena egingo dugu. Edozein zalantza izanez gero, kontsulta iezaguzu.

Zerrenda baten arabera deitua izateko eskubidea duzu. Saia zaitez nola deitzen duten kontrolatzen, eta irregulartasunen bat ikusten baduzu, salatu.

Lan-eskaintza bati baietz esan aurretik, eskubidea duzu kontratazioaren helburua eta kontratuaren edukia ezagutzeko

Arduradun eta gainerako langileengandik tratatu egokia jasotzeko eskubidea duzu.

Lan-arriskuei buruzko osasun-azterketa eta informazioa jasotzeko eskubidea duzu.

Eskubidea duzu zure lan-baldintzekin zerikusia duen edozein gairi buruzko informazioa eskatzeko eta kontsulta sindikalak egiteko.

Karteldegia bi hilero ezarri behar dira, arauari egokituta, eta arduradunak ezin du bere kabuz aldatu. Oporrak hartzeko eskubide duzu.

Zure laneko arropa eta gauzak uzteko armairu duin bat izateko eskubidea duzu.

Karteldegiek batez beste hilean 145 ordu izan behar dituzte. Zure kontratuak 3 hilabete edo gehiago iraun badu eta amaitzean ordu soberakinak badituzu (aurrerago azalduko dugu nola kalkulatu), zor duzun zenbatekoa idatziz erreklamatu behar duzu, Osakidetzak ez baitu ofizioz ordaintzen. Erreklamatzeko baduzu, kontuan izan Osakidetzak berrikusi egingo dituela zerbitzu-erakunde horretako azken 4 urteetako kontratuak.

BI MOTATAKO KONTRATAZIO-ZERRENDETAN EMAN DEZAKEZU IZENA:

1. Izendapen luzeen zerrenda: 6 hilabeteko edo gehiagoko iraupena duten kontratuatarako. Zerbitzuak eman nahi dituzun ESIak eta osasun-eremuak

aukeratu ahal izango dituzu. ESIak aukeratzen ez badituzu, hautatutako osasun-eremuko edozein ESItan lan egitea onartzen duzula ulertuko da. Ez baduzu ESirik edo osasun-arlorik aukeratzen, Osakidetza edozein zentroan lan egiteko prest zaudela ulertuko da. Aukeraketa hau edozein unetan alda daiteke, baina eragina izango du zerrenden* hurrengo eguneratzearen ondoren.

2. Izendapen laburren zerrenda: zerbitzu-erakunde bat edo bi aukeratzen dira. 6 hilabete baino gutxiagoko iraupena duten kontratuak eskaintzen dira. Zerrenda hori zerbitzu-erakunde bakoitzak kudeatzen du. Ez baduzu bat ere aukeratzen, ulertuko da ez duzula zerrenda horretan sartu nahi, eta hautaketan egindako edozein aldaketa indarrean jarriko da zerrenden* hurrengo eguneratzearekin batera.

** Zerrenden eguneraketa egiteko ekainaren 30a eta abenduaren 31 hartuko dira epemuga bezala.*

ZURE ESKABIDEKO AUKERAKETA ALDATU NAHI BADUZU:

Eskaerako aukeraketa aldatu ahal izango duzu, bai lanaldi-modalitateari dagokionez, bai eta ESiei eta aukeratutako lan-zentroeiei dagokienez ere, baina honako hau hartu beharko duzu kontuan:

- 1. Lanaldiaren modalitatea aldatzen baduzu,** hautaketa berria handik 5 egunera sartuko da indarrean, eta ezingo duzu berriro aldatu 3 hilabete igaro arte.
- 2. Hautatutako ESIak aldatzen badituzu,** hautaketa berria zerrenden hurrengo eguneraketan sartuko da indarrean.

KONTRATU BATI UKO EGIN NAHI BADIOZU:

1. Oro har, **izendapen-eskaintzei ezin zaie uko egin. Kontratu bati uko egin ahal izango zaio Kontratazio Akordioan jasotako justifikazio-arrazoiren bat alegatzen denean.** Arrazoi horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu behar da. **Uko egiteko onartutako arrazoiak ezagutzea gomendatzen dizugu, kontratazio-akordio horren 26. artikulutik aurrera kontsultatuz** (liburuxka honen amaieran nola deskargatu aurkituko duzu).

KONTRATAZIO ZERRENDETAN BERRIZ AKTIBATU BEHARKO DUZU:

Izendapen luzeen zerrendako edo izendapen laburren zerrendako **iraupen**

mugagabeko kontratu bat amaitzen denean, berraktibatzea eskatu beharko duzu eskaintza berriak jasotzeko. Berraktibatzea kontratua amaitu eta **15 egun naturaleko epean eskatu behar da**, eta eskaera egin eta 3 egun baliodunera jarriko da indarrean. Epe hori igaro ondoren, berriz aktibatzea eska dezakezu, baina aktibazioa eskatu eta 15 egun naturalera gauzatuko da.

Zure kontratuak amaiera-data zehatza bazuen, berraktibatzea ofizioz egingo da.

2. Edozein zerrendatako kontratazio-eskaintza bati **uko egitean**, justifikazio-arrazoia amaitzen denetik berraktibazioa **15 egun naturaleko epean eskatu beharko da**.

LANGILE FINKOEK DITUZTEN ESKUBIDE GEHIENAK DITUZU.

IRAKURRI LAN-BALDINTZEN AKORDIOA ETA ZURE ESKUIBIDEAK BORROKATU.

OSAKIDETZAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZEI BURUZKO AKORDIOAREN LABURPENA



URTEKO LANALDIA

Lanaldia = 1.592 ordu urtean



GAUEKO ORDUA

> Gaueko orduari 1,1eko faktore biderkatzailea aplikatuko zaio. Beraz, lan egindako 10 orduko gau bakoitzeko, 11 ordu zenbatuko dira.

> 55 urtetik gorako langileei 1,15eko faktore biderkatzailea aplikatuko zaie.

> 60 urtetik gorako langileei 1,25eko faktore biderkatzailea aplikatuko zaie.



ATSEDENALDIA

Lanaldiaren iraupena 6 ordu jarraian baino luzeagoa bada, 15 minutuko atsedenaldia egongo da (atsedenaldi hori lan-txandaren barruan hartuko da).



SOLAPEA

- > Eguneke lanaldia 10 minutu luzatzean datza, txanda -aldaketaren dagozkion parteak transmititzeko.
- > Aldi baterako ezintasun egoeran dauden langileei solape-denbora zenbatuko zaie.
- > Lizentzia edo opor egoeretan EZ da zenbatuko solapea.



GAUEKO ORDUEI, EGUN LIBREEI ETA ASTEBURUEI DAGOZKIEN OINARRIZKO PRINTZPIOAK

- > 8 astetan egin daitezkeen gehienezko gau-ordu kopurua (gaueko txanda finkoko langileentzat izan ezik) = 70 ordu gehienez.
- > Egun libreak: asteko egun eta erdi etenik gabe (72 egun urtean)
- > Egun libreko asteburuak: 3 asteburutik 1
- > (Printzipio orokor horien aplikazioa unitateetako benetako langile-kopuruaren eta unitateko beharren menpe dago).



LANALDIEN ARTEKO ETENIK GABEKO GUTXIENENKO ATSEDENALDIA

12 ordu



LAN - KARTELDEGIAK

Unitate bakoitzean negoziatutako lan-karteldegia nahitaezkoak izango dira bi hilean behin, eta premia larriak edo aurreikusi ezin diren arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira.



GEHIEGIZKO ORDUENGATIKO KONPENTSAZIOA

- > Lanegunetan: ohiko lanaldia gainditzen duten gehiegizko orduak, premia larriengatik, presakoengatik edo aurreikusi ezin diren beharreetatik, lan egindako ordu bakoitzeko ordu eta erdiko konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango dute.
- > Jaiegunean edo gauez: lan egindako ordu bakoitzeko bi ordu konpentsatuko dira.

> Konpentsazio hori hilero kontabilizatuko da, eta zenbaketaren dataren hurrengo hiruhilekoan hartu ahal izango da. Langileak eta zerbitzu-erakunde bakoitzeko zuzendaritzak erabakiko dute noiz hartu egunak.



OPORRAK

> Zerbitzuko urte oso bakoitzeko: 28 lanegun (larunbatak laneguntzat hartzen dira).

> Zerbitzu-urtea betetzen ez bada: kontratazioaren egunetik urte bereko abenduaren 31ra arte igarotako zerbitzu-denborarekiko proportzionala izango da oporren iraupena.

> Ezin dira dirutan konpentsatu, ez osorik, ez zatika. Salbuespenak: urtean zehar enplegu-harremana amaitzen bada edo eszedentzian edo eginkizun-etenaldian badago eta oraindik oporrak osorik hartu ez baditu. Orduan, hartzeko geratzen zaizun zati proportzionala ordainduko zaizu.

> Lau alditan zatitu ahal izango da oporraldia.

> Opor-egunak baimendu ondoren, premiazko eta ezinbesteko arrazoiengatik ukatzen badira, arrazoi horrengatik sortutako gastuak ordain diezazkizuten eskubidea izango duzu.

> Zerbitzuaren beharrak direla eta, zuzendaritzak langileei egutegian ezarritako oporren data aldatzen badie, langilea 2 laneguneko oporraldia luzatuz konpentsatuko da.

> Oporretan dagoen bitartean, langileak aldi baterako ezintasun-egoera hasiko balu, oporrak eten egingo lirатеke, eta ondoren, hartu gabeko aldiari ekingo litzaioke.

> Oporrak urte naturalean hartuko dira. Salbuespena: amak edo aitak oporrak hartzeko aldia, haurdunaldi, erditze, edoskitze, adopzio eta harreragatiko lizentziari gehitu ahal izango dizkio, nahiz eta urte naturala amaitu. Berdina gertatzen da urtea IT egoeran bukatu eta oraindik opor egunak pendiente edukiz gero.



LIZENTZIAK

Lanera ez joatea, dagokion arauan tipifikatuta eta justifikatuta. **Zerbitzu-erakunde bakoitzeko Giza Baliabideen Zuzendaritzari zuzendutako**

idazki baten bidez eskatuko dira, gutxienez 10 egun lehenago, salbu eta gerora justifikatu beharko diren aparteko arrazoiak daudenean. Langileen eskubide bat da lanera ez joateko, ordaindua izango dena. Ebazpena (garaiz eta behar bezala eskatzen bada) ezin izango da ez atzeratu ezta ukatu ere. **Eskubide bat denez, arrazoi larriek, presazkoek edo aurreikusi ezinezkoek baino ez dute justifikatuko eskubide hori ukatzea.**



BAIMENAK

Lizentziak ez bezala, horiek ematea Zerbitzu Erakundeko Zuzendaritzari dagokio, unitate eskatzailearen arduradunak txostena egin ondoren.

LIZENTZIA ETA BAIMENEN ESKAERAK IDATZIZ EDO “OSAKIDETZAKOA” BIDEZ EGIN. ERANTZUNAK ERE IDATZIZ JASOTZEA ESKATU.

ORDAINDUTAKO LIZENTZIAK

GERTAERA	ODOL AHAIDETASUNA	APLIKAZIOA
HERIOTZA	Ezkontidea, izatezko bikotekidea , odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 1. mailako senideak	5 egun baliodun ezkontidearentzat, izatezko bikotekidearentzat, seme-alabarentzat, suhiarentzat edo errainarentzat 3 egun baliodun aita edo ama, aitaginarreba edo amaginarreba bada Luzapena: 2 egun natural gehiago, gertaera 150 km baino urrunago bada.
	Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailako senidea	3 egun baliodun. Luzapena: 2 egun natural gehiago gertaera 150 km baino urrunago bada.

GERTAERA	ODOL AHAIDETASUNA	APLIKAZIOA
ISTRIPUA EDO GAIXOTASUN LARRIA OSPITALERATZEA ETA ETXeko OSPITALIZAZIOA ATSEDEN HARTZEA ESKATZEN DUEN OSPITALERATZERIK GABEKO EBAKUNTZA KIRURGIKOA	Ezkontidea, izatezko bikotekidea, odol- ahaidetasunezko edo ezkontza- ahaidetasunezko 1. mailako senidea eta langilearekin etxebizitza berean bizi dena eta langilea benetan zaindu behar duena	5 egun baliodun. Ospitaleratze-kasuetan, baimena 5 egun baliodunera arte emango da, ospitalean dagoen bitartean (egoera hori justifikatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da). Ospitaleratzearen altan etxeko atsedena behar dela adierazten duen txosten medikoa badago, baimena 5 egun baliodunera arte mantenduko da. Luzapena: 2 egun natural gehiago ezkontidearentzat, izatezko bikotekidearentzat, seme-alabarentzat, gertaera 150 km baino urrunago bada. 1. mailako gainerako ahaideak eta bizikidea: luzapenik gabe
	Odol- ahaidetasunezko edo ezkontza- ahaidetasunezko 2. mailako senidea	4 egun baliodun

2 egun naturaleko lizentzia har daiteke berriro, lehenengo lizentzia amaitu eta 30 egun igaro ondoren.

Oharra: Egun baliodunak: karteldegiaaren arabera zerbitzuak ematearekin bat datozen egunak

"Ospitaleratzetik behar ez duten ebakuntza kirurgikoen edo proba inbaditzaileen kasuan (etxean atsedena hartzea ere behar ez den kasuetan), bai ezkontidearen, bikotekidearen edo seme-alabaren kasuan, bai odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. mailarainoko ahaideen kasuan, edo behar bezala egiaztatutako bizikidetzaren egonkoraren kasuan, egun bateko baimena izango da "

> Behar bezala egiaztatutako bizikidetza egonkorra izanez gero, ezkontideari, bikotekideari, seme-alabari edo 2. gradura arteko edo urrunagoko ahaideei **ospitalizaziorik egin behar ez zaien ebakuntza kirurgikoak**: egun 1. Baimen hori prozedura inbaditzaileetan ere ematen da.

> **Ohiko etxebizitza aldatzeko lizentzia**: 2 egun natural (lanpostu horretan urtebete baino gehiago daramaten langileentzat), errolda-agiriarekin justifikatuta.

> **Norberaren eginkizunetarako lizentzia: 20 egun natural lehenago eskatu ondoren, 45 ordu (6 egun eta 3 ordu)** urte natural bakoitzean, edo lanean emandako denborarekiko proportzionala urte bereko abenduaren 31ra arte. Gainera, 2 egun gehiago izango dira 6. hiruordekoa betetzean, eta zortzigarrenetik aurrera betetako hiruordeko bakoitzeko egun bat gehiago.

> **Gaixotasun oso larria duen lehen mailako senide bat zaintzeko lizentzia**: lanaldia % 50 arte murriztea, ordainduta, hilabeteko epean.

> **Seme edo alaba goiztiarra jaiotzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik erditzearen ondoren ospitaleratzea mantendu behar den kasuetan**: lanera ez joateko eskubidea, gehienez ere 2 ordu/egun (ordainsari osoak jasota). Era berean, lanaldia murrizteko eskatu ahal izango da, gehienez 2 orduz, eta ordainsariak proportzio berean murriztuko zaizkio.

> **>Haurdunaldi, erditze, edoskitze, adopzio eta harrera bidezko eszedentzia edo lizentzia**: 21 aste.

> **Guraso bakarreko familietan jaiotzagatik ematen den lizentzia**: 34 aste.

> **Nahitaezko betebeharrak publiko edo pertsonalak betetzeko lizentzia**: hori betetzeko behar den denbora, lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

BAIMENAK

> **Azterketetara joateko baimena**: zentro ofizial edo homologatuetakoa akademikoak: **egutegiko egun 1**, ohiko zein ezohiko deialdietan egin beharreko azterketa proba bakoitzeko. Azterketa langilearen **bizilekutik 150 km baino gehiagora egiten bada, 2 egun** luza daiteke baimena. Ordaindutako baimena. Egiaztagiria aurkeztu behar da.

› Eskatzaileak azterketa egin aurreko gaueko txandan lan egiten badu, txanda hori bera edo azterketa egunean hartu ahal izango du libre.

> **Ikastaro eta biltzarretara joateko baimena:** zientifikoak edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko eta administratzeko interesgarriak badira, gehienez 15 egun natural, zerbitzuaren beharren arabera eta zuzendaritzaren aldez aurreko baimenarekin. Ordaindua izango da, baina dieta, bidaia eta egonaldirako eskubiderik gabe.

> **Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena:** lanaldian zehar, norberaren premiak direla eta, bertaratzeak behar bezala justifikatuta daudenean eta bertaratzen diren zentroek lanorduetatik kanpo joateko kontsulta-ordurik ezarrita ez dutenean, gehienez 4 ordu, behar bezala egiaztatutako salbuespenetan izan ezik.

> **Gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senideak zaintzeko baimena: 50 ordu urtean, ordainduta.** Oro har, egunean gehienez 2 ordu erabili ahal izango dira, eta lanera sartzean edo lanetik irtetean hartu ahal izango dira. Hala ere, baimena baliatzeko beste formula batzuk hitzartu ahal izango dira karteldegian.

> **Adingabeak edo minusbaliatu psikiko, fisiko edo sentsorialak eta beren kabuz baliatu ezin diren 2. mailara arteko ahaideak zaintzeko baimena:** lanaldiaren herena gutxienez eta erdia gehienez murrizteko eskubidea.

> **Genero-indarkeriagatiko baimena:** genero-indarkeriaren biktima diren emakume langileen bertaratze-faltak, erabatekoak edo partzialak, arretako edo osasuneko gizarte-zerbitzuek zehazten duten denboran eta baldintzetan justifikatuko dira.

> **Norberarengauzetarako baimena:** lanpostuan urtebete igaro ondoren bakarrik eskatu ahal izango da. Norberaren gauzetarako emandako baimenek ez dute inolako ordainsaririk jasoko, eta **baimen horien iraupen metatua ezin izango da lau hilabetetik gorakoa izan bi urtean behin. Baimena ikasketa ofizialak egiteko eskatzen bada, gehienez ere hiru hilabete jarraian eman ahal izango dira, urtean behin.** Baimen hori ematea zerbitzuaren beharren menpe egongo da.

KARTELDEGIKO ORDUTEGI-SOBERAKINA KALKULATZEKO FORMULA

Kontratuko egunak 4,36 (oporrak hartzen badituzu) edo 4,75 (oporrik hartzen ez baduzu) zenbakekin biderkatu behar dira. Bideraketaren emaitzak zenbat lan ordu egin beharko zenituzkeen esango digu.

↓ Kalkulatu kontratu osoan lan egiten dituzun orduak (kontuan izan solaperik duzun, LMAk solaperik gabe kontatu behar direla eta gauetan 11 ordu direla). Hauek dira benetan lan egin dituzun orduak.

↓ Egin kenketa eta egiaztatu ordu gutxi edo gehiegi dituzun.

Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa

<http://biltegia.lab.eus/zure-eskubideak-osakidetzan/lanBaldintzenAkordioa.pdf>

Langilea → Giza baliabideak → Lan - harremanak → Baldintzak arautzen dituen akordioa.

• Osakidetzako zuzendaritzak ez du dokumentua eguneratu. Eguneratuta ikusteko, sartu gure atarian:


<http://biltegia.lab.eus/zure-eskubideak-osakidetzan/index.html>

Osakidetzako EOZ erakunde publikoaren administrazio-kontseiluaren erabakia, Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzekoa:

Langilea → Giza baliabideak → hautaketa eta posizioa →

Aldi baterako kontratazioa → Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren erabakia

Odolkidetasun mailak



LANGABEZIA - PRESTAZIOAK

Lan-harremana langilearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik amaitzen bada, langabezia-prestazioa kobratzeko eskubidea izango du. Prestazioaren zenbatekoa eta iraupena kotizazio denboraren eta zenbatekoaren arabera izango da. Ondorioz, ez da inolako prestaziorik jasotzeko eskubiderik aitoritzen lana uztearen arrazoia borondatezkoa denean.

Epea: lana norberaren borondatearen kontra uzten denetik 15 eguneko epean eskatu beharko da. Eskaera egiteko, enplegu-eskatzaile gisa inskribatu behar da eta aldizka berritu, prestazioa kobratzeko eskubidea galdu nahi ez bada.

Zenbatekoa: Lehenengo 180 egunetan, oinarri arautzailearen % 70. Gainerako egunetan, oinarri horren % 50. Oinarri arautzailea legezko langabezia-egoeraren aurreko azken 180 egunetako langabeziagatiko kotizazioaren batezbestekoa da.

Iraupena: kotizatutako egunen arabera, taula honen arabera:

KOTIZAZIO EGUNAK	PRESTAZIO EGUNAK
360 - 539	120
540 - 719	180
540 - 719	240
900 - 1079	300
1080 - 1259	360
1260 - 1439	420
1440 - 1619	480
1620 - 1799	540
1800 - 1979	600
1980 - 2159	660
2160Tik aurrera	720

Lanaldi partzialean lan egin badu, langabeziarako lan egindako egun bat zenbatuko da, kotizatutako egun bat.

Kotizazioak nahikoa ez direnean kotizaziopeko langabezia-prestazioa sortzeko (12 hilabete baino gutxiagoko kotizazioa), langabezia subsidioa jasotzeko aukera dago. Estatuak finkatzen du urtero.

KOTIZAZIO EGUNAK	SUBSIDIOAREN IRAUPEN
FAMILIA ARDURAREKIN	
90 eta 119 egun artean	3 hilabete
120 eta 149 egun artean	4 hilabete
150 eta 179 egun artean	5 hilabete
180 egun edo gehiago	1 hilabete
FAMILIA ARDURARIK GABE	
180 egun edo gehiago	6 hilabete

DOKUMENTU INTERESGARRIAK



ZUGANDIK GERTU GAUDE ESTAMOS CERCA DE TI

ARABA		
ARABA ESI - TXAGORRITXU	sindicato.LABTxago@osakidetza.eus	945007369 / 813083
ARABA ESI - SANTIAGO	BUZONLAB.HOSPITALSANTIAGO@osakidetza.eus	817845 / 945007845
ARABA ESI - LEHEN ARRETA	SINDICATO.LABSANMARTIN@osakidetza.eus	
ARABA ERRIOXA	lab.osiriojaalavesa@osakidetza.eus	945006907 / 816907
AOMS	LAB.SMASMA@osakidetza.eus	945006576 / 806576
BIZKAIA		
GORLIZko OSPITALEA	SINDICATO.LABGORLIZ@osakidetza.eus	689438412
SANTA MARINA OSPITALEA	lab.hospitalsantamarina@osakidetza.eus	660880478
BARAKALDO SEXTAOko ESI	LAB-SANELOY@osakidetza.eus	944006712 / 856712
BARRUALDE GALDAKAOko ESI	lab.barrualde-galdakao@osakidetza.eus	944007199 / 857199
BILBO-BASURTUko ESI	labsindikatua.osibilbaobasurto@osakidetza.eus	944006292 / 856292
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAko ESI	lab.cruces@osakidetza.eus	946006118-7738 / 846118-7738
BOMS	LAB.boms@osakidetza.eus	699952398
URIBEko ESI	lab.esiuribe@osakidetza.eus	946134895 / 864895
GIPUZKOA		
DEBAGOIENA	lab.haltodeba@osakidetza.eus	835777
BIDASOko ESI	o.bidasoa@lab.eus	683414489
DEBABARRENEko ESI	sindicatos-lab.hospitalmendaro@osakidetza.eus	943032871 / 832871
DONOSTIALDEko ESI	osid.sindikatulab@osakidetza.eus	943007282/837282
GOIERRI-UROLA GARAiko ESI	lab.hospitalzumarraga@osakidetza.eus	943005000 / 835575
EAE		
EMERGENTZIAK	sindicato.LABemergencias@osakidetza.eus	
ZUZENDARITZA NAGUSIA	sindicato.LABSCC@osakidetza.eus	945006487 / 618065660